

IBON MANTEROLA

Deskribapena: Kike, Ibon Manterolakin Gasteizen elkarrizketan ageri da.

Kike: “Ibon, gaur egun hiztunen artean dugun aniztasuna sekulakoa da; baditugu euskaldun zaharrak, euskaldun berriak, euskalkia dakitenak, ez dakitenak, pixkat dakitenak, ahaztutakoak... Sekulako kolorea dauka gure komunitateak, ezta?”

Ibon: “Bai, pentsa asko dakitenak eta asko iten dutenak, ba aukera daukatelako edo aukera gutxiago izanda ere, nahi dutelako eta bilatzen dutelako modua. E, badauzkagu baita ere gutxi dakitenak baina dakiten gutxi horri etekina ateratzen ikasi dutenak eta moldatzen direnak. Badauzkagu baita ere asko jakin arren, dana dalako arrazoiengatik, nahiz eta ingurua euskalduna izan, ba egiten ez dutenak. Eta ez nuke ahaztu nahi, e, beste mota batekin, ez dira hiztunak, baina pentsa, euskeraz egin gabe eta euskera erabili gabe haurrak euskeraz eskolatzeko hautua egin duen guraso talde ikaragarri hori ere oso inportantea iruditzen zait, nahiz eta ez izan euskararen hiztunak.”

Kike: “Ibon, multzo nagusienak aipatu dizkiguzu eta orain bakoitzaren ezaugarriak aipatuko ditugu?”

Ibon: “Har ditzagun, demagun etxetik euskaldun, euskal hiztun deitzen ditugun horiek. Haur hauek gehien bat topatuko ditugu normala den bezela, e, ingurune euskaldunenetan edo. Orduan haur hauek euskeraz egingo dute etxean gurasoekin, eskolara doazenean ikastolara andereñoarekin, maixuekin euskaraz, e, jolas orduetan ere gehien euskaraz egiten dutenak ikerketen arabera ere hauek dira, e, kalean ere gehien euskeraz egiten dutenak hauek dira. Nolabait alde guztietan euskeraz egiteko erraztasunak edo dauzka. Jo dezagun orain etxetik euskalduna dena baina ingurune erdaldun batean hazten ari dena. Honek ere euskeraz egiten du etxean, eskolan ere egingo du baina ingurune euskalduneko gazteak erraztasuna daukan bezela kalean ere euskaraz egiteko, ingurune erdaldun xamarrean bizi diren gaztetxo hauek askoz ere zailtasun gehiago daukate euskeraz aritzeko kalean.”

Kike: “Beste multzo bat.”

Ibon: “E, etxetik erdaldun deitzen ditugunak, edo nahi baldin bada euskaldun berriak. Hemen ere, adinaren arabera, hor dauzkagu euskaltegietan helduarroan euskaldundu direnak baina badauzkagu baita ere e, haurtzaindegien bidez, ikastolen, eskolen bidez, euskarazko eskolaren bidez euskaldundu direnak. Hemen ere, e, aurreko taldean bezela jo genezake herri euskaldun batera eta familiaratik erdalduna den haur edo gaztetxoa, nahiz eta etxean ez egin euskaraz, nola etxetik kanpo oso ingurune euskaldunean bizi den ba, aukera dauka euskeraz normal-normal bizitzeko asko egiteko eta ez agian euskalkia txikitatik jaso etxean, baizik etxetik kanpoko sozializazioan. Eta gero dauzkagu, e, ingurune erdaldunean hazten ari diren haurrak. Hauek ere euskaldun berriak dira baina ingurunea nola erdalduna den eta etxean ere erderaz bakarrik egiten duten, ba, haur hauek euskeraz egiteko aukera, esango dugu ia-ia bakarra edo, eta batez ere, txiki haurtzaro haurtzaroan eskola dute. Hazten ari diren bezala, sozializazioaren arabera hautuak egiten baldin badituzte, adibidez, Gasteizko gazte askok eta egiten duten bezela, etxetik erdaldun izan arren ingurune erdalduna baino ez dakit, hamasei hemezortzi urterekin erabakitzen dute guk euskaraz nahi dugu bizi eta

ahal dugun guztia egingo dugu ba, gaztetxo horiek ere, euskaraz jota ke egiten dute ahal duten guztietan, e, erdararako joera duten gazteak ere euskalduntzen dabilta eta beraien inguruan, euskeraren aldeko atxikimendu handia ari dira zabaltzen.”

Kike: “Eta bi horietatik aparte?”

Ibon: “Lehen esan baldin badugu, etxetik euskaldunak, etxetik erdaldunak, hor badago tarteko multzo bat edo eta deitzen dena etxetik txikitatik elebidunak direnak. Hauek ere, e, ingurunea zenbat eta euskaldunagoa izan orduan eta aukera gehiago izango dute, ez etxean bakarrik baita ere etxetik kanpo ere euskaraz egiteko. Ingurunea zenbat eta erdaldunagoa izan, ba, Gasteizko aipatutako gazte horiek bezela ba denborarekin, e, seguru aski hautu konszienteagoa egin beharko dute euskeraren erabileraren alde.”

Kike: “Ibon, egoeraren erradiografia bat egin dugu, baina hau ez da estatikoa noski!”

Ibon: “Ez, inolaz ere ez. Nik esango nuke, pixka bat modu probokatzaillean, etorkizunari begira eta euskararentzat, erdaldunak jatorriz erdaldunak direnak, euskaldunberri deitzen diegunak, eragile gisa, askoz ere inportanteagoak direla euskaldun zahar deitzen ditugun horiek baino.”